

AUZO-EZTABAIDAGUNEA: SANTA MARÍA LA REAL, LEZKAIRU

2020-01-21 – MILAGROSAKO CIVIVOXA

HEZKUNTZA, HERRITARREN PARTAIDETZA ETA GAZTERIAKO ALORRA
IRUÑEKO UDALA



TXOSTENAREN EDUKIA:

SARRERA: DATU OROKORRAK	2
ONGIETORRIA.....	2
ALKATEAREN SARRERA.....	2
INFORMAZIOA AUZO-ZINEGOTZIAREN ESKUTIK.....	2
GALDERAK ETA IRADOKIZUNAK.....	5
AMAIERA.....	12
ERANSKINA: AURRETIKO KONTSULTAK	12
ERANSKINA: IRUDIAK	20



SARRERA: DATU OROKORRAK

Data: 2020/01/21

Ordua: 18:30 – 20:30

Tokia: Milagrosako Civivoxa

Udal-ordezkarriak: Iruñeko alkate Enrique Mayak eta Santa María La Real eta Lezkairu auzoetako zinegotzi María Caballerok osatzen dute mahaia. Beste alor batzuetako zinegotziak eta zuzendariak ere bertan izan ziren.

Parte-hartzaileen kopurua: 44 (25 emakume eta 19 gizon)

Moderatzailea: Herritarren Parte-hartzea Dinamizatzeko Zerbitzua

ONGIETORRIA

Iruñeko Udaleko Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorreko zuzendari Sara Climentek hasiera eman dio topaketari, mahaikideak aurkeztu ditu, eta saioaren eta orain hasiko den Auzo-eztabaidaguneen errondaren egitura orokorra azaldu du. Ondoren, Iruñeko alkate Enrique Mayari hitza eman dio.

ALKATEAREN SARRERA

Alkateak, mintzaldiaren lehenengo zatian, bertaratutakoei zein bileran diren Udalbatzako kideei eskerrak eman ondoren, bi auzoen historia errepasatu du, gabeziak eta eskakizunak azaldu ditu, hala nola Lezkairuko ekipamendu falta zein adinekoendako lokalik ez egotea Santa María La Realen.

Jarraian, eta auzoko zinegotziari hitza eman aurretik, azaldu du auzo-eztabaidaguneen erronda honetan zehar jasotzen diren eskakizunak errealismotik abiatuta aztertu eta landuko direla, inbertsioak lehenetsita, eta Hiri Kontserbazioko Alorraren irizpideak aintzat hartuta, honako hau bete gabeko promesen espazio bat izan ez dadin.

INFORMAZIOA AUZO-ZINEGOTZIAREN ESKUTIK

María Caballero zinegotziak hitza hartu eta auzo-eztabaidagunearen aurretik jasotako eskakizun guztien errepasoa egin du (ikus: ERANSKINA: ALDEZ AURRETIKO KONTSULTAK), eta eskerrak eman dizkio aurrez auzoko zinegotzi izandako Javier Leozi egindako lanagatik.



Atal honi hasiera emateko Lezkairuko Auzo Unitatearen berri eman du, zeina aurtengo otsailaren 15ean martxan jartzea espero baita.

Lezkairuko ikastetxe publikoari buruzko eskakizunei dagokienez, Udalak iazko apirilean lurzorua laga zuela jakinarazi du, eta orain lizentzia izapidetuko dutela. Nafarroako Gobernuak jada proiektuaren lizitazioa argitaratu du, eta martxoaren 6ra arte du proiektua aurkezteko. Hurrengo urratsa eraikitzen hastea litzateke. 2022. urterako amaituta egotea aurreikusita dago. Hezkuntza-eredua eta Paderborn ikastetxea bertara eramateko aurreikusitako ideia ez ditu berretsi Nafarroako Gobernuak.

Lezkairuko osasun-zentroari buruz, lizentzia emana dago jada eta 2022an zehar irekitzea espero da, baita ondoko Osasun Mentaleko Zentroa ere.

Auzotarrek eskatutako zakurrendako pixatokiari dagokionez, Maravillas Lamberto plazan horretarako toki bat egokitu da, behin betiko kokapen batera lekualdatu arte.

Haur-eskola jada proiektu bat egin duen ekipamendua da, eta aurrekontua esleitzeko zain daude obrak egiten hasteko. Behin hasita, gutxi gorabehera urtebeteko epean amaituta egotea aurreikusita dago.

Zaborren bilketa pneumatikoa jasotako beste eskakizunetako bat da, aurreko auzo-erabakidaguneetan ere agertu zena. Iragarritako inaugurazio-datak ez dira orain arte bete. Mankomunitateak emandako datuen arabera, aurtan Lezkairuko eta Erripagañako ustiapena lehiaketara aterako dituzte, eta aurreikusita dago 2021erako zerbitzua abiatzea.

Aurrez egindako eskakizunetan jasotako beste gaietako bat eskualdeko hiri-garraioa da. Duela gutxi 17, 22 eta 25 lineak aldatu egin dira auzoetan gora egiten ari den populazioari zerbitzu hobea ematen saiatzeko. Lortutako emaitza ebaluatu beharko da. Ez da beharrezkotzat jotzen Lezkairu eta NUP lotzeko villavesa bat ezartzea, elkarrengandik gertu baitaude.

Auzo honetan bertan kirolerako zuzkidura-lurzati bat izateko eskakizunari dagokionez, une honetan ez dago diru-zuzkidurarik eta ez dago aurreikusitako lehentasunen artean.

Ibilgailuen zirkulazioa eta horien abiadura kezka eragiten en duen beste gaietako bat da. Abiadura murrizteko errepideko konkorrak eta semaforoak paratu dira (Katalunia etorbidean kasu), eta arazoa desagerrarazi da radar bat jarrita beharrezkoa izan denean.



Futbol-zelaian estalkia paratzeko proiektua birritan geratu da esleitu gabe. Berriz ere lizitazioa abiatu da, aurrekontua handituta, eta espero da lizitatzailerik egotea eta obra udarako gauzatzea.

Maravillas Lamberto plazari buruzko ekimen bat dago, zeinak plazaren perimetroaren inguruan ez eraikitzeke eskatzen baitu. Dena den, aurreikusitako plangintzan udal-etxebizitzak eraikitzea aurreikusita dago, eta ez da planteatzen hori ez garatzea.

Halaber, Lezkairuko zentro komunitarioan berriz argibide-panelak instalatzea aintzat hartzen da, aurreikusitako jarduerekin eta non egingo diren zehaztuta.

Zikintzen duten zuhaitzak zikintzen ez duten beste batzuegatik ordezkatzeari dagokionez, gai hori lorategietako teknikariei helaraziko zaie, baina zikinkeria hori hostoek sortzen duten landare-zorriek eragiten dute, eta ezin da landare-zorri horiek kentzeko tratamendurik eman. Hortaz, eztabaidatu beharko duten kontu teknikoak da.

Haur-parkean itzal gehiago egotea eskatzen da, eta jakinarazi du proiektuen alorrak hiri osoan hainbat jarduketa aurreikusita dituela gai horren inguruan, eta horietako bat dela.

Patinatzeko eta bizikletan ibiltzeko eremu bat egitea ikertzen ari dira, erreferentzia gisa hartuta Hendaiako eredu bat, eta kostuak baloratzen ari dira.

Lezkairun eremu urdina jartzeko aukerari dagokionez, gaur egun Udalak ez du halakorik planteatzen.

Gaizki jarrita dauden aparkatzeko marrei buruzko kexa uda aurretik konpontzea espero da, horretarako berriz ere margotuta, aparkatzea errazteko. Berez, jatorrizko akatsa da.

Lezkairuko Hiri Kontribuzioaren Zergaren zenbatekoari buruzko kexak aztertu eta berrikusten ari dira, izan ere, Iruña baloratzeko txostenak eragin berezia du auzo horretan.

Santa María La Reali dagokionez, errepide berria eraikitzen ari dira jada, eta Tennis Klubaren atzeko lurzatiko afera konponduta dago jada. Udaltzainek aditzera eman dutenez, ez dago segurtasun-gabezia arazo nabarmenik, eta aipatu dute Milagrosako komunitate-poliziarri ere auzo hori egokitzen zaiola, hartara gertuko zerbitzua eman ahal izateko.

Eskatutako auzo-lokalari dagokionez, eskakizun horri erantzuna ematea espero da horretarako Igualatorioko lurzattia delakoan (Mutiloabeiti kalea) egiten ari diren eraikineko



beheko solairua emanda. Urtebete barru egonen da prest. Beheko solairu hori Udalaren jabetzakoa da, eta 400 metro koadroko azalera du.

Atal horri buru emateko, jasotako beste eskakizun bat komentatzen da: Mugartea etorbidetik Mendillorrira joateko oinezkoendako sarbide bat eskatzen duena, hain zuzen. Aurreko auzo-eztabaidaguneetan konponbide horren inguruko arazoak argudiatu ziren, eremu hori jabego pribatukoa baita.

GALDERAK ETA IRADOKIZUNAK

Atal honetan guztira 15 lagunek hartu dute hitza:

EGILEA	GALDERA / ERANTZUNA
Lezkairuko auzotarra	2022ra arte ez bada Lezkairuko ikastetxea amaituta egonen, zer konponbide eskainiko da ordura arte?
Udala	<i>Ikastetxe berri bat eraikitzeak denbora nahikotxo behar du. Proiektua lizitatuta dago, baina ez dago bakarrik Iruñeko Udalaren esku, Nafarroako Gobernuak ere badu ardura. Bien bitartean haurrak gertuko beste ikastetxe batzuetara eraman daitezke. Hala ere, Udala prest dago zonalde honetan hezkuntza jasotzea errazteko beharrezkoak diren moduluak egokitzeko.</i>
Auzotarra Santa María La Real Auzo Elkartea	Zorionak eman dizkio aurreko auzoko zinegotzi Javier Leozí Elkartearen eskakizunetako batzuk gauzatu baititu, hala nola José Vilako kirol-eremua eta Ori mendiaren zeharkalea. Hala ere, auzoak duen abandonu sentrazioa azpimarratu du, urteak baitaramatzate hainbat behar asetzeko eskatzen eta ez dira betetzen (gizarte-langilea, osasun-zentroa, liburutegia...). Bi auzoak lotzeko eskatu du, Santa María La Real eta Lezkairu arteko lortura bat sortzea, eta ekipamenduak bi zonaldeentarako izatea. Horren adibide da egun eraikitzen ari dena baino handiagoa den auzo-lokal baten eskakizuna*, belaunaldien arteko zentro bat, liburutegiarekin, Tennis Klubaren alboko orubean.



	<p>Gainera, urtez urte errepikatzen duten eskakizunetako bat da gaeuz garraio publikoa izatea Santa María La Real eta Arrosadiko etxeetaraino (9. linea ez da auzoraino heltzen gaeuz, ezta jaiegunetan ere). Amaitzeko villavesen markesina bat jartzea eskatu du, Eroski parean.</p>
Udala	<p><i>Teniseko orubea zuzkidurarako izatea onetsita dago, eta gizarte-etxea, mota guztietako erabilerak barne hartzen dituena, Lezkairuko Maravillas Lamberto plazan kokatuta egonen da. Horrez gain, egun eraikitzen ari den 400 metroko* lokalak erantzuna ematen dio auzoan dagoen espazio-eskariari.</i></p> <p><i>Auzoan gizarte-langile bat egoteko eskakizunari dagokionez, auzoko zinegotziak Nafarroako Foru Komunitaterako ezarritako gizarte-zerbitzuetako zonifikazioa aipatu du. Honek dekretu bidez ez du jasotzen Lezkairuko Auzo Unitateak arreta eman ahal izatea Santa María La Realen (Milagrosako Auzo Unitatera joaten jarraitu beharko dute).</i></p>
Santa María La Realeko auzotarra	<p>Santa María La Real auzoa, Udalaren interesen arabera, beti egon izan da itxuragabetuta, alde batean Milagrosa eta bestean Lezkairu dituelako. 60ko hamarkadan sortu zenetik arazo berberak daramatza arrastaka, eta apenas egin izan dira hobetzeko esku-hartzeak. Milagrosaren antzeko ezaugarriak dituen auzoa da (aparkatzeko arazoak, auzora sartzeko zailtasunak, trafikoa...), eta premiazkoa da Hiri Jarduketarako Plan Bereziaren (PEAU) barruan aintzat hartua izatea. Noiz abiatuko da plan hori?</p>
Udala	<p><i>Udalak behin baino gehiagotan helarazi dizkio Mankomunitateari villavesa-eskariak, baina zentzu horretan ez da aldaketarik egin hiriko zonalde horretan zerbitzuak erabiltzaile gutxi dituelako. Hala ere, badirudi laster gaueko linea bat jarriko dela Santa María La Real auzoan.</i></p> <p><i>Hiri Jarduketarako Plan Bereziak (PEAU) martxan jarraitzen du, baina jarduketa oso bortitzak dira, lasaitasunez neurtu beharrekoak.</i></p>
Auzotarra	<p>Eragozpenak zabor-kamioien zaratagatik eta Taxoare kaleko 3-5 zenbakietako edukiontzien usainagatik.</p> <p>Desgaitasuna duten pertsonen aparkatzeko toki falta dute.</p>
Udala	<p><i>Informazio hori Mankomunitateari eta Udaltzaingoari helaraziko zaie.</i></p>



<p>Lezkairuko auzotarra</p>	<p>Oinezkoendako pasabideen ordenantza berria ez da betetzen ez Santa María La Realen ez Lezkairun.</p> <p>Futbol-zelairako estalki bat eskatzen du, kalitatezkoa eta ez behin-behinekoa.</p>
<p><i>Udala</i></p>	<p><i>Oinezkoendako pasabideen ordenantza poliki-poliki joanen da gauzatzen, erabilgarritasuna eta baliabideak bitarteko.</i></p> <p><i>Futbol-zelaiari dagokionez, aurkeztutako proiektuak baloratuko dira, oraindik lizitazio-fasean baitago. Auzotarrak dagokion alorretik pasatzera eta kontratazio atarian sartzera animatu ditu, proiektu hori ezagutu eta hobetu ahal izateko.</i></p>
<p>Lezkairuko auzotarra</p>	<p>Ez dago garraio publikorik zenbait ordu-tartetan (9. lineak ez du zerbitzurik ematen auzoan)</p> <p>Paderborn ikastetxeaz gain, zer beste aukera planteatzen dira euskara zein alemana nahi ez dutenentzat zonalde horretan?</p>
<p><i>Udala</i></p>	<p><i>Lineen kontua aztertu eta Mankomunitateari helaraziko zaio.</i></p> <p><i>Etorkizuneko ikastetxearen hezkuntza-eredua Nafarroako Gobernuaren eskumena da, eta Udalak eskumen hori errespetatuko du. Ez da erabaki zein hizkuntza-eredu ezarriko den ikastetxe horretan.</i></p>
<p>Auzotarra</p>	<p><i>Aurreikusita al dago supermerkatu/hipermerkatu handiren bat irekitzea Lezkairu inguruan?</i></p> <p><i>Erdiko plazan, zer nolako etxebizitzak eraikiko dira?</i></p> <p><i>Zuzkidurara bideratutako eremuetan etxebizitzak lizitatu al daitezke?</i></p>
<p><i>Udala</i></p>	<p><i>Lezkairuko beheko solairuko lokalak txikiak dira, eta tipologia oso espezifikoak dute. Oraindik ez dago eskaerarik saltoki handirik irekitzeko.</i></p> <p><i>Momentuz ez dago ezer erabakita. Lurzatiak Udalarenak dira, 400 etxebizitza sartzen dira gutxi gorabehera eta ez daude babes ofizialekoak izatera mugatuta. Hala ere, Udalak lurzati horien gainean erabakiak har ditzake</i></p>



	<p><i>(enkantean atera daiteke beste operazio batzuk estaltzeko, hala nola hiria hobetzekoak).</i></p> <p><i>Merkataritzarako eremu horiek, zuzkidurakoek... ez dute eskaririk. Lurzati horien jabeek etxebizitzak eraiki nahi dituzte, planak jotzen badu ere % 70ek babes ofizialeko etxebizitzak izan behar dutela.</i></p>
<p>Santa María La Realeko auzotarra</p>	<p><i>Gaueko garraio publikoa aldarrikatu du, auzoak ez baitu halako zerbitzurik. Taxi-zerbitzuari buruz ere aritu da. Nahiko gaizki ibili izan da azken urte honetan zonalde horretan.</i></p> <p><i>Milagrosako osasun-zentroari dagokionez, jakin nahi du zer gertatzen den itxaron-zerrendarekin. Izan ere, metaketa handia dago eta zaila da hitzordua hartzea.</i></p> <p><i>Zabor-erakundeak bezainbatean, egun gehienetan gainezka daude eta horrek espazio arazoak eragiten ditu espaloietan, kaleak zikintzeaz gain, etab.</i></p> <p><i>Katalunia etorbideko ibilgailuak gauez zaintzeko eskatu du, auto-lasterketak egiten baitira eta bera horien biktima izan baita.</i></p>
<p>Udala</p>	<p><i>Udalak badu auto-lasterketa horien berri Iruñeko hainbat tokitan eta Udaltzaingoari zonalde hori gehiago zaintzeko eskatuko zaio.</i></p> <p><i>Gaueko zaintza, egia da, ez da bertara joanda egiten, eta batez ere kameren bidez egiten da.</i></p> <p><i>Edukiontzietara botatzen diren gauzak ez dira Mankomunitatearen ardurak. Dena den, hori kontrolatzeko zaintza gehiago jartzea aztertuko da.</i></p> <p><i>Osasun-zentroari dagokionez, ez dago Iruñeko Udalaren esku eta, hain zuzen, Santa María La Real Milagrosako zentrotik urrun dagoenez, proposatu da bertako auzotarrak Agoitz kaleko osasun-zentroa erabili ahal izatea. Lehen mailako arretan bost langile gehitu zaizkie han jada zeudenei, jende orori behar bezalako arreta eman ahal izateko.</i></p>
<p>Auzotarra</p>	<p><i>Auzoak atsegin egitearen alde agertu da gertuko merkataritzaren bidez, kalean eroso ibiltzea, zonaldean lan egin eta auzoko bizitzan parte hartzen dutenek hutsik dauden etxabeak erabiltzea, ekipamenduak, udal-etxebizitzak,</i></p>



	<p>etab.</p> <p>Villavesa linea zirkularra eskatzen du, erabiltzaileen erosotasuna areagotzeko eta autoaren erabileraren alternatiba gisa.</p>
Udala	<p><i>Lehenengoari buruz, Udalaren eskumenak mugatuak dira, eta izan du bere gain hartu partikularrek egiten dutena. Etxabe hutsak dituzten auzoetan lokalak erosteko proposamen bat dago, horiek erosi eta deialdi bat egitekoa non auzoak biziberritzeko jarduerak lehenetsiko baitira.</i></p> <p><i>Hainbat arau-aldaketa egin dira, aho-batez, loft delakoak egiteko lokalak izateko. Nafarroako Gobernuari jakinarazi zaio eta ematen du horren alde dagoela, baina maila teknikoan egin ahal izatea ere beharrezkoa da.</i></p> <p><i>Linea zirkularrak egitea jada existitzen den helburu bat da eta Udalak konpromisoa hartu zuen horrekin, baina gauzatzea falta da.</i></p>
Auzotarra Lezkairuko Auzo Elkartea	<p>Maravillas Lamberto plazan saretak batzuk jarri dira itzala emateko, baina irekiak direnez, ez dute itzalik ematen. Hori estaltzeko eskatu du.</p> <p>Bestalde, frontoia ere estaltzeko eskatu du, hainbat elkartek zein entitatek jende orori zuzendutako jarduerak estalpean egin ahal izateko.</p>
Udala	<p><i>Frontoiaren egoera eta horren bideragarritasuna aztertuko dira. Ideia ona da.</i></p> <p><i>Saretari dagokionez, teorian, altuera eta inklinazio jakin bat badu beti itzala ematen du, baina dirudienez teoriak huts egiten du. Zein konponbide eman ahal zaion ikusiko dugu.</i></p>
Auzotarra	<p><i>Santa María La Reali buruz, posible litzateke Mutiloabeiti kalearen eta Alaitz Mendiaren kalearen arteko plaza konpontzea? Bankuak, bizikletak aparkatzeko euskarriak... eta "lantegiaren" hormarako horma-irudi bat eskatzen ditu.</i></p> <p><i>Lezkairuri dagokionez, DBH eta Batxilergoa ezar litezke ikastetxean?</i></p>



Udala	<p><i>Santa María La Realeko plazarako altzarien beharra dagokion Alorrari helaraziko zaio.</i></p> <p><i>Ikastetxeari buruz, oraindik ez dakigu zein hezkuntza-eredu ezarriko den, ezta zein lurzati egokituko zaion, ez beste kokapen posibleak ere.</i></p>
Auzotarra	<p>Trafikoa Katalunia etorbidean eta Taxoare kalean.</p> <p>Zein da saltokien merkataritza-ordutegia, bereziki Taxoare kalekoena? Zarata, trafikoa, zikinkeria eta beste hainbat eragozpen eragiten dituzte.</p> <p>Santa María La Real eta Lezkairu egituratzeko eremu komunak topatzearen garrantzia azpimarratu du. José Vila erabil liteke ikastetxea paratzeko?</p>
Udala	<p><i>Duela gutxiko epai baten arabera, saltokiek itxiera-ordutegia erabakitzeko aske dira. Bestelako eragozpenak eragin edo saltoki baten baldintzak beteko ez balituzte, udaltzainek esku hartu lezakete.</i></p> <p><i>Ezin da José Vilan paratu Paderborn ikastetxea. Aukera gisa aintzat hartu zen, baina azken batean baztertu zen. Momentuz, eraikin horrek orain dena izaten jarraituko du.</i></p>
Auzotarra	<p>Nola jar gaitzke harremanetan Hezkuntzarekin Paderborn ikastetxearen etorkizunaz bezainbatean auzoaren beharrak helarazteko?</p>
Udala	<p><i>Udalak berak ikastetxeari buruzko esku-hartze eta proposamen guztiak helaraziko dizkio.</i></p>
Auzotarra	<p>Etxabeak aparkaleku gisa egokitzeko aukerari buruz galdetu du, PEAUaren aurreko saioetan aukera hori aipatu baitzen, erabiltzen ez diren neurri handiko hainbat etxabe baitaude.</p> <p>Auzoak dituen ekipamenduei buruz, Civivoxak duen espazioa eta eraikina bera auzoari ematea planteatzen du, liburutegi gisa, Civivox handiago bat, etab.</p>



Udala	<p><i>Egungo araudiaren arabera espaloietan 10 metro utzi behar dira libre saltokientzat, baina argi dago hori aldatu daitekeela etxabeak aparkaleku bihur daitezzen.</i></p> <p><i>Adierazten duen zentroaren gaineko ekipamenduei dagokienez, iradokizuna jaso da.</i></p>
Santa María La Realeko auzotarra	<p>José Vila (Civivoxa dagoen eraikina) berriz ere ikastetxe izatea proposatu du. Arduraz ikusten du Paderborn ikastetxea Lezkairura eramatea, horrek berekin despopulazioa baitakar. Eraikin horrek auzoan eragina ez duten ekipamenduek dituela uste du, bertako Civivoxak ez baititu auzoaren beharrak asetzen, haren tamaina dela eta.</p> <p>Tenis Klubaren atzealdean dagoen orubea, 1700 metrokoa, zuzkidurakoa izatea eskatu du, hala espero du, eta ez dezatela beste gauzaren batean bihurtu, behar ekonomikoen arabera.</p>
Udala	<p><i>Orube horretan ez da etxebizitzarik egingen, eta ziurtasun osoz zuzkidurakoa izanen da.</i></p>
Auzotarra	<p>Autoen abiadura murrizteko neurriak hartzeko eskatzen du. Zehazki, Mendillorritik Lezkairura doan biribilgunean, Leoz plazan. Oso arriskutsua da oinezkoen pasabideak gurutzatzea, oso azkar baitaibiltza.</p>
Udala	<p><i>Egia da, toki arriskutsua da, eta gogoan hartuko da konpontze aldera.</i></p>

AMAIERA

Ehun eta laurogei minuturen ostean eta bertaratutakoen galdera gehiagorik ezean, auzoko zinegotzi María Caballero amaitutzat jo du auzo-eztabaidagunea, eta Udalarekin bi auzoei lotutako edozein gai helarazteko beti zabalik dauden bideak eskaini dizkie.

ERANSKINA: AURRETIKO KONTSULTAK

Auzo-eztabaidagunea egin aurretik jasotako kontsultak, honako bide hauetatik:

- Telefonoa: 948420266
- E-maila: forosdebarrio.participacion@pamplona.es
- Erabaki: erabaki.pamplona.es

Zenbat kontsulta jaso diren	24 (2020/01/21)
Kontsultatutako gaiak	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxe publikoa (8) - Zerbitzuak eta ekipamenduak (11) - Mugikortasuna (9) - Merkataritza (2) - Gune publikoak (2) - EDUSI (1)

GAIA	NONDIK HELARAZITA	KONTSULTATEGIA
Lezkairuko ikastetxea	E-maila	<p>Arratsalde on.</p> <p>Hona hemen alkate jaunarendako nire galdera: Noizko aurreikusten da auzoko ikastetxe publikoa eraikita egotea? Ikastetxe hori Paderborn - Víctor Pradera izanen al da? Eskerrik asko.</p>
Lezkairuko ikastetxe publikoa	E-maila	<p>Arratsalde on:</p> <p>Noiz eraikiko da Lezkairuko ikastetxe publikoa? Ikastetxe publiko hori Paderborn - Víctor Pradera izanen al da, 2018an prentsan iragarri bezala? Eskerrik asko. Agur bero bat.</p>



Lezkairuko ikastetxe publikoa	E-maila	<p>Arratsalde on:</p> <p>Etorkizunean Lezkairuko Zalduko auzotarra izanen naizenez, jakin nahiko nuke zer gertatuko den Lezkairuko ikastetxe publikoarekin. Egia al da Paderborn bertara eramanen dela? Askok gustatzen zait ikastetxe hori eta hala izatea asko gustatuko litzaidake. Noizko aurreikusita dago ikasturte hasiera? Agur bero bat</p>
Paderborn Ikastetxea etorkizunean Lezkairun	E-maila	<p>Arratsalde on:</p> <p>Gustatuko litzaidake Iruñeko alkateari galdetzea etorkizunean Lezkairun Paderborn ikastetxea egiteko lanei buruz. Paderborn ikastetxea, egun Víctor Pradera ikastetxean dagoena, Lezkairuko ikastetxe berrira lekualdatuko dela entzun da duela zenbait urte. Baina kontua da obrak ez direla hasten. Noiz hasiko dira? Nork eman behar ditu hurrengo urratsak ikastetxe horren eraikuntzan aurrera egiteko? Bide batez, nire galdera justifikatu nahi dut: Víctor Pradera ikastetxeko egunto instalazioetan haurrak jada ez dira sartzen. Kontua ez da ikastetxe berri bat nahi izatea. Kontua da ikastetxe honetan azken urteotan eman den matrikulazio altuak ikasle kopuruak goia jotzea eragin duela, eta Víctor Pradera txiki geratu da. Jantokia, patioa, ikasgelak... ez dira nahiko eta familia asko beldur gara egunen batean ez ote den zerbait gertatuko. Eskerrik asko.</p>
Paderborn ikastetxe publikoa	E-maila	<p>Arratsalde on:</p> <p>Hona hemen alkateari egiten diodan galdera: iazko apirillean berri bat argitaratu zen, non Paderborn ikastetxe publikoa lekualdatuko zela jasotzen baitzen, Lezkairun eraikitzekoa zen ikastetxe berrira, alegia. Diario de Navarra, zehatz-mehatz zera zioen: "Paderborn se convertirá en el colegio público de Lezkairu". Hori hala izanen da eta noizko egonen da ikastetxe berria prest? Mila esker</p>
Ikastetxe publikoa	E-maila	<p>Lezkairuko zaldia auzoan honako galdera hau dugu: Noiz egonen da eraikia auzoko ikastetxe berria? Eta behin gauzatuta, bertan Paderborn IPa egonen al da? Mila esker!</p>
Espazio publikoak	E-maila	<ul style="list-style-type: none"> - Argiztapena, oro har, hobetzea. Oso eskasa eta iluna da, oinezkoen pasabideetan izan ezik. - Zuhaitz, landare zein lorategien zaintza hobetzea; hondatuta




		<p>daudenak berritzea; landatze berriak aztertzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Tenis atzealdeko errepide berriaren obrak amaitzea. Denbora gehiegi. - Erdiguneko plazan aurreikusitako espazio guztiak ez eraikitzea; horiek berdeguneetarako baliatzea. Nire iPadetik bidalia
<p>Merkataritza Zerbitzuak Mugikortasuna</p>	E-maila	<p>Egun on. Auzo-eztabaidagunean parte hartu nahiko nuke mezu honen bidez.</p> <p>Supermerkatu bat irekitzea plateatzea gustatuko litzaidake: BM, Carrefour, Eroski edo beste edozein.</p> <p>Egia esanda, ez dakit zenbat farmazia eta taberna daude, eta supermerkatu bat ere ez.</p> <p>Baita ere, ongi legoke egitea gimnasio bat, estankoa eta postetxea.</p> <p>Villavesen 22. lineak ibilbide oso motza du, eta La Morearaino heltzea planteatu liteke.</p> <p>Gero eta auzotar gehiago gara eta ezinbesteko gauza asko falta zaizkigu.</p> <p>Mila esker aldezturik.</p> <p>Agur bero bat</p>
<p>Zerbitzuak Mugikortasuna</p>	E-maila	<p>Kaixo, egun on,</p> <p>Maya alkateari zein haren laguntzaileei honako galdera hauek helaraztea eskertzen dizuet:</p> <p>Noizko dago aurreikusita Lezkairuko Zalduko kirolguneko obrak hastea?</p> <p>Noiz hasiko da Mankomunitatea zaborren bilteta pneumatikoarekin?</p> <p>Noizko dago aurreikusita eremu urdina / laranja ezartzea Lezkairun?</p> <p>Ongi izan eta mila esker.</p> <p>Ikusi arte.</p>
<p>Zerbitzuak Mugikortasuna</p>	E-maila	<p>Arratsalde on:</p> <p>Mila esker auzo-eztabaidaguneak antolatzeagatik.</p> <p>Lezkairuko auzotarra naiz duela 8 urte eta honako gai hauek mahaigaineratu nahiko nituzke, jada ez badira eztabaidatu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kirol-hiria: <p>Noiz egingo da zerbait? Urteak daramatzagu hori atzeratzen eta benetan beharrezkoa da zonaldearentzat.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Paderborn ikastetxea: <p>2021-2022ko ikasturterako prest egonen al da?</p> <ul style="list-style-type: none"> - Mugartea etorbidetik Mendillorrira joateko oinezkoendako sarbidea:



		<p>Sigi-saga egiten duen bide bat bada, baina distantzia handia dago hortik.</p> <p>Auzoan ikastetxerik zein kirol instalaziorik ez dagoenez, askok egunero joan behar dugu Mendillorrira.</p> <p>Ezingo zen eskailera bat jarri, bidea laburtzeko? Hori da jende guztiak egiten duena, baina sortzen joan diren lurrezko bideen bidez.</p> <p>- Aparkatzeko marrak Adela Bazo kalean.</p> <p>Hilabeteak-urteak dira aparkatzeko marrak zeharka eta ez perpendikularki margotzea atzeratzen ari direla. Bai aparkatzea bai aparkalekutik ateratzea arriskutsua da (aparkatzean kontrako erraia inbadituta eta irtetean ikusgaitasunik eza).</p> <p>Auzo-zinegotzi berriarekin aurrerapauso asko ematea espero dut, gure auzoa zerbitzuz hornitzeaz bezainbatean.</p> <p>Mila esker, benetan, laguntzagatik.</p>
Merkataritza Zerbitzuak Ekipamenduak	E-maila	<p>Kaixo: supermerkatuak aurreikusita al dagoen jakin nahiko nuke. Kirol-hiria noiz hasiko da?</p> <p>Haurrendako ikastetxea proiektatuta al dago?</p> <p>Agur t'erdia</p>
Ekipamenduak Mugikortasuna	E-maila	<p>Dataren bat aurreikusita al dago Lezkairuko osasun-zentro berria eraikitzen hasteko?</p> <p>Uneren batean berriz ere helduko ote zaio zonaldean kirolgune bat egiteko ideari?</p> <p>Autoen joan-etorri handia saihesteko, baloratuko litzateke aparkatzeko eremu zuria bizitegi-erabilerako aparkatze-eremu bihurtzea?</p>
Mugikortasuna	E-maila	<p>Arratsalde on, Lezkairuko auzotarra naiz, María Lacunza kaleko 25ekoa, Pedro. Ezin izanen naiz bertan izan eta gustatuko litzaidake Udaleko langileei honako hau helaraztea: Ibilgailuak ziztu bizian igarotzen dira auzotik. Neurriak hartu behar dira. Katalunia etorbidean semaforoak jarri dira, oinezko batek sakagailua sakatzean aktibatzen direnak. Eta asmatu egin da, erabat. Behintzat oinezkoen pasabidetik lasai gurutzatu dezakezu. Joan Paulo II.aren etorbidean, garrantzitsuenetako batean, oinezkoen pasabide bat jarri beharko litzateke gasolindegia eta Mutiloarte mugatzen duen biribilgunearen artean. Eta Katalunia etorbidean semaforoak jarriko balira, hobe. Gainera, udaltzainak isunak jartzen hastea beharrezkoa da. Radarra duen kotxe bat jar lezakete eta harrituta geratuko lirateke arratsalde batean jartzen ahal dituzten isunekin. Esker mila, agur bero bat</p>



<p>Mugikortasuna</p>	<p>E-maila</p>	<p>Arratsalde on.</p> <p>Oinezkoen zenbait pasabidek ez dute seinaleztapen horizontalik, eta horrek zaildu egiten du oinezkoek erabiltzea eta ibilgailuek horiek errespetatzea era egokian. Sarritan, ibilgailuek horien gainean aparkatzen dute, errespetatu gabe.</p>  <p>Nire iradokizuna da oinezkoen pasabideetako eremuko zorua margotzea.</p> <p>Mila esker eta arratsalde on.</p>
<p>Paderborn ikastetxe publikoa Ekipamenduak Espazio publikoa</p>	<p>E-maila</p>	<p>Kaixo, gabon:</p> <p>Lezkairuko auzotarra naiz duela urte eta erdi. Aukera asko dituen auzo bat da, erdigunetik gertu, eta nahiko ongi urbanizatua. Baina gustatuko litzaidake gogoratzea oraindik ere ez dugula osasun-zentrorik, ez liburutegirik, ez Civioxik ere, bestelako zerbitzu garrantzitsuen artean. Auzoan ere ez dago haur hezkuntzako 0/3 tarteko eskola publikorik, eta ez da aurrerapausorik ikusten hitzemandako Paderborn ikastetxe publiko berriaz bezainbatean (gaztelania, alemana eta ingelesa eskaintzen duen zentroa, alegia).</p> <p>Auzotar guztion, handien zein txikien aisialdiari begira, interesgarria litzateke baita ere aipatzea Alfredo Landari eskainitako parkea eta ondoan duen Maravillas Lamberto plaza benetan txiki geratzen direla auzoak duen populazioarendako. Bi parkeetan ez dago behar bezalako zuhaitzik. Hortaz, Maravillas Lambertoko parkearen atzealdean geratzen diren lurzatiak berdegune bilakatu litezke, zuhaitzekin, zabalak, ez bakarrik asfaltozkoak. Udaberri, uda zein udazkeneko egunak gozatu ahal izateko guneak. Sarritan bero handia egiten baitu, eta egia esan,</p>



		<p>ez baitago itzalik gerizpean babesteko. Mila esker alde z aurretik parte hartzeko aukera hau eskaintzeagatik.</p>
Ekipamenduak	E-maila	<p>Kaixo, hona hemen nire galdera: Igerilekurik eraikiko al da? Ala baztertutako zerbait da? Mila esker</p>
Paderborn ikastetxe publikoa	E-maila	<p>Gabon, Lezkairuko Zalduan ikastetxe berri bat eraikitze asmoa dela eta idazten dut. Paderborn ikastetxeko ikasle baten ama naiz; egun Zaragozako etorbidean dago eta espazio zein azpiegitura arazo larriak ditu. Paderborn proiektuak horrenbeste egin du gora ikasle kopuruari dagokionez ezen instalazioak, duela nahiko denbora jada, txiki geratu direla urtez urte proiektu zoragarri honen parte izan nahi duten ikasle berriak jaso ahal izateko. Jakin nahiko nuke ea gure ikastetxea eta gure proiektua eta gure PAAL eredia Lezkairuko ikastetxe berrian emanen diren ereduetao bat izanen ote den. Esker anitz zuen denboragatik.</p>
EDUSI	E-maila	<p>Egun on: Honako gai hauei buruz hitz egitea gustatuko litzaidake: - EDUSI 2020 plangintza. - BBPB-HSPB. Plana martxan jartzea eta birgaitzeko bulegoa - Esku-hartze soziala: elkarbizitza hobetzea. Eskerrik asko. Agur bero bat.</p>
Ekipamenduak Mugikortasuna	E-maila	<p>Kaixo, Zenbait BEHAR EDO IRADOKIZUN helarazi nahiko nituzke: -Maravillas Lamberto parkeko portxerako estalkia, gerizpe zein aterpe gisa erabili ahal izateko. -Itzal gehiago, zuhaitz handiekin, udan gaizki pasatzen delako, ez baitago halako zonalderik. -Udal-igerilekuak. Joan den udan ez ziguten utzi Mutiloako igerilekuetako abonamendua ateratzen –horiek dira gertuen ditugunak– argudiatuta jende gehiegi zegoela jada. Izan ere, gero eta auzotar gehiago gara bertara joaten garenak. -Civivox. Auzoan gazte asko egonen dira, baita nagusiagoak ere, aisialdi- eta kultura-topaketa horiek gozatu ahalko lituzketenak, beste auzo batzuetan dauden bezala hemen ere halako toki bat egonen balitz. - Zirkulazioa erregulatzea semaforoan zein bestelako bidez, hartara saihestuta neurri handi batean zirkulazio azkarra, eta</p>



		<p>honen gorakada.</p> <p>- Barañain-Erripagañako 19. Villavesak, ospitaleetara doanak eta Tenis ondoan hartzen denak, bere ibilbidea luzatu lezake eta auzora sartu. Horrek goraino igo behar izatea aurreztuko liguke.</p> <p>KRITIKA</p> <p>Bestalde, zakurrendako eremuaren egungo kokapena kritikatu dut (dirudenez behin-behinekoa da) auzoaren erdi-erdian baitago. Beharrezkoa dela egia bada ere, nire ustez futbol-zelaiaren ondoan kokatzea egokiagoa litzateke.</p> <p>ZALANTZA</p> <p>2022rako aurreikusita dagoen lau lerrotako ikastetxe publikoak zein hezkuntza-eredu eskainiko du: G eredu, A eredu, D eredu? Ala eraikin berria Paderborn ikastetxea zabaltzeko izanen da, zeinak soilik alemanezko eredu eskaintzen baitu? Azken hori duela zenbait denbora entzuten ari zena zen, baina azken albisteek ez diote ezer horri buruz. Auzoaren benetako eskaria aintzat hartzea gustatuko litzaidake.</p> <p>Eskerrik asko.</p> <p>Lezkairu auzoko Mutiloagoiti kaleko auzotarra.</p>
Ekipamenduak	E-maila	<p>Kaixo:</p> <p>Galdera bat helarazi nahiko nuke gaurko eztabaidagunerako. Auzotar askok Lezkairun udal-igerilekuak egiten ote diren jakin nahi dute. Horren inguruan zerbait komentatu liteke, mesedez?</p> <p>Mila esker</p>
Ekipamenduak	E-maila	<p>Egun on, nire iritzia eman nahiko nuke auzo honetako kontribuzioaren zerga gehiegizkoa dela uste baitut. Metroko prezioa lehen bizi nintzen pisuan ordaintzen nuenaren bikoitza baino gehiago ateratzen zait, eta lehen, gainera hemen ez ditudan zerbitzu-mota guztiak nituen (ikastetxeak, haur-eskolak, igerilekuak, baita era guztietako saltokiak ere).</p> <p>Halaber, Maravillas Lamberto plaza bere horretan geratu beharko litzatekeela uste dut, eraiki gabe, auzoko erdiguneko plaza delako eta berdeguneak behar direlako.</p> <p>Bestalde, noizko Lezkairuko igerilekuak? Haur eta gazte asko dituen zonalde bat da, eta gainera alboko auzoetako jendea erakarriko lukete.</p> <p>Eskerrik asko.</p>



GAIAK	NONDIK HELARAZITA	KONTSULTATEGIA
Mugikortasuna	Erabaki	<p>Abiadura kontrolatzea eta zirkulazioaren noranzkoa</p> <p>Adela Bazo kaleko zirkulazioak erregulatu gabe jarraitzen du. Autoek abiadura handian zirkulatzen jarraitzen dute, bereziki Adela Bazo kalea Joan Paulo II.aren etorbidearekin eta Taxoare kalearekin lotzen dituzten biribilguneetan.</p> <p>Alberto Toca Echevarría kalearen lehen zatian, Taxoare kalera doan horretan, autoek kontrako noranzkoan zirkulatzen jarraitzen dute, arrisku larria eraginez bai oinezkoei bai gainerako ibilgailuei.</p>
Mugikortasuna	Erabaki	<p>Villavesen lotura hobetzea</p> <p>Lezkairu eta Mutiloako lineen ibilbideak berriki aldatu badira ere, Joan Paulo II.aren etorbidearen eta Taxoare kalearen arteko aldeak ez du inongo loturarik autobus-lineekin. Gertuenak distantzia handira daude, autobusak Taxoare kalearen eta Katalunia kalearen arteko biribilgunean geratzen baitira. Bertara ailegatzeko distantzia handia dago eta gainera, bertaraino heltzeko obren eremua gurutzatu behar da, eta obrak gauzatu ahal izateko espaloiak okupatuta daude. Uste dut lineetakoren bat koadrante honetako kale nagusietakoren batetik igaro beharko litzatekeela. Adela Bazo kaleko lurzatian ikastetxea eraikiko denez, espero genuen zonalde hori autobus-zerbitzuekin lotzeko aukera aintzat hartzea, baina ikusi dugu ikastetxeko obra ez dela hasten eta autobus-lineak ez direla aldatzen bertan bizi garen herritarrak aintzat hartuta.</p>
Ekipamenduak	Erabaki	<p>Lezkairuko Zalduko zuzkidura-plana</p> <p>Lezkairuko Zalduan, Iruñeko auzo berrian, urte askoz esan izan dute oinarrizko zuzkidura-zerbitzu publikoak jarriko direla, baina promesa horiek ez dira betetzen, ez dira datak zehazten eta ez dira hasiera batean aurreikusitako epeak betetzen. Horregatik, Udalari eskatzen diogu Zuzkidura Plan bat ezartzea, epe labur eta ertainean, non auzorako oinarrizko zerbitzu publikoetarako epe zehatzak ezarriko baitira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zaborren bilketa pneumatikoa (Mankomunitatearekin elkarlanean) - gaur egun geldirik dago - Osasun-zentroa - Haur-eskola -Ikastetxea - duela gutxi argitatu da lizitazioa baina ez da hizkuntza-eredua zehaztu ez Paderborn - Víctor Pradera ikastetxea izanen den - Igerilekua/kirolgunea



Halaber, auzo-eztabaidagunea amaitzean, honako gai hauek jaso ziren horretarako egokitu zen postontzian:

EGILEA	GALDERA / ERANTZUNA
Auzotarra	Auzoan merkataritza-guneren bat eraikiko den galdetu du (BM, Leclerc, Eroski)

ERANSKINA: IRUDIAK







Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es

ÁREA DE EDUCACIÓN, PARTICIPACIÓN
CIUDADANA Y JUVENTUD

Participación Ciudadana

HEZKUNTZA, HERRITARREN
PARTAIDETZA ETA GAZTERIAKO ALORRA

Herritarren Partaidetza

